

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko ekainaren 7an egindako ohiko bilkuran, 2022ko uztailaren 29an enplegu-eskaintza arrunta onesteko hartu zuen erabakia aldatzea erabaki zuen, zehazki 3. eranskinean jasotakoa

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 29an egindako bilkuran, enplegu publikoaren eskaintza arrunta onetsi zuen, zehazki, 3. eranskinean jasotako 155 lanpostu, txanda ezberdinetan betetzeko. Bertan, desgaitasun intelektuala dutenentzako 14 lanpostu ere eskaini ziren, eta horietan ez da aldaketarik izango. 3. eranskinean jasotako lanpostuen deialdi publikorik ez da oraindik egin.

Antolaketa Zerbitzuaren 2024ko maiatzaren 29ko txostenaren arabera, aldatu egin behar dira, hainbat arrazoi tarteko, 2022ko uztailaren 29ko enplegu-eskaintzan onartutako lanpostu batzuk. 2024ko ekainaren 7an, 2022ko enplegu-eskaintza hartan jasotako hiru dotazioaren ezaugarriak aldatzea onartu du gobernu batzarrak, 2024ko errealitatera egokitu behar dela iritzita. Hauek dira hiru aldaketa horiek: ustiapenetako goi mailako teknikari bat goi mailako datu-analista izatera pasatuko da, mantentze-lanetako ofizial espezialista bati lanaldia murriztuko zaio, eta gizarte-langile bati, berriz, lanaldia handituko. Era berean, eta lanpostuak birsailkatzeko prozesu baten barruan, prebentzio eta segurtasuneko erdi mailako lanpostu bat segurtasuneko goi mailako teknikari bihurtu zuen Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 3an. 2022ko urriaren 14an, enpleguko goi mailako teknikari lanpostuari izena aldatzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, eta turismo goi mailako teknikari lanpostua izatera pasa zen.

Bestalde, bete egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 565/2023. Epai horrek goi mailako dokumentalista lanpostuari eragiten zion, eta funtzionario bat izendatu behar izan da lanpostu horretarako. Horrenbestez, eskaintza-tik kendu da lanpostua. Era berean, kendu egin da parke eta lorategietako taldeburuaren plaza bat, zerbitzua berrantolatzeke prozesu bat burutzen ari denez berraztertu egin beharra baitago.

Ondorioz, aldatu egin behar da 2022ko uztailaren 29ko erabakia, 3. eranskinari dagokionez, eta bakar bakarrik enplegu-eskaintza arruntari buruzko taula, aldaketak sartzeko. Orain, 153 lanpostuko eskaintza da, txanda desberdinetan betetzeko, 3. eranskin berrian agertzen denari jarraiki. Desgaitasuna duten pertsonentzako zeuden lanpostuetan ez da aldaketarik izan.

Aldaketa horien ondorioz, bi lanpostu gutxiago ditu 2022ko enplegu-eskaintzak. Aldaketa hau onartu egin beharra dago, xedapen-zatian gehitu den 3. eranskin berriaren arabera, eta berriro argitaratu eskaintza berria.

Onetsitako aldaketarekin batera gehitu egin dira udal kontu-hartzailearen aldeko txostena, bai eta txosten juridiko eta ekonomikoa ere. Maiatzaren 15ean eta 22an langileen batzordearekin negoziatu da.

Horrenbestez, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikulua —abendua 16ko 57/2003 Legeak aldatua— aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez Funtzio Publikoaren Saileko zinegotziaren esku utzitako aginpidea betez, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehena. Aldatzea Tokiko Gobernu Batzarrak enplegu publikoaren eskaintza onesteko 2022ko uztailaren 29an hartutako erabakia, zehazki 3. eranskineko eskaintza publikoaren taula. 3. eranskin berri honek ordeztu egiten du 2022ko uztailaren 29an onetsitakoa.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa hilabeteko epean, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Orokorrari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 30ean

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

%	Dedikazioaren %
DD	Derrigortasun-data igarota
Kodea	Lanpostuaren kodea
PI	Barne Sustapena
IREKIA	Irekia
DESG.	Desgaitasuna

Matrikula Kontua						AZKENA	TXANDA		2022KO EPE, GUZTIRA	
TALDEA	DO	KODEA	IZENA	%	DD	2022KO EPE				
						PI	IREKIA	DESG.		
A1	24	1027	TURISMOKO G.T	100	BAI		1		1	
		1035	ADMIN. OROK. G. T.	100		EZ	1	1	2	
						BAI		2	1	3
		1038	INGURUM. DIAG. PLANG. TEK.	100	EZ		1		1	
		5003	ARKITEKTOA	100	EZ			4	4	
		5004	EKONOMILARIA	100	EZ			1	1	
		5022	PSIKOLOGOA, G.T.	100		EZ		1		1
						BAI	1	2	1	4
		5051	GAZTERIAKO G.T	100	BAI			1	1	
		5079	ENPLE-PREST. LAN. BIT.	100	BAI			1	1	
5081	IKUS-ENTZUN. KUDEAK., GT	100	BAI			1	1			
9028	PREBENTZIOKO TEKNIKARIA, G.T.	100	BAI			1	1			
9029	DATUEN ANALISTA, G.T.	100	EZ			1	1			
A1 (Guztira)						2	18	2	22	
A2	23	2003	KUDEAKETAKO TEK.	100	BAI		1		1	
		920	ORIENTAZIO ETA ENPLEGUKO E.T.	100	BAI		1		1	
		1402	JARD. SOZIO-KULTURALEKO E.T.	100	BAI	1	1		2	
		1417	ANTOLAKUNTZAKO E.T.	100	BAI		1		1	
		6004	ARKITEKTO TEKNIKO	100		EZ	1	2	3	
						BAI		1	1	
		6014	HEZKUNTZAKO E.T.	100	BAI	1	2		3	
		6017	ADMINIST. BEREZ. E.T. (A.B.E.T.)	100	EZ		1		1	
		6023	GIZARTE-LANGILEA, E.T.	100		EZ	1	1	2	
						BAI		1	1	
		6037	ARTXIBOKO E.T.	100	BAI	1	1		2	
		6039	KIROL KOORD. ,E.T.	100	BAI	1	3		4	
		6042	LAN HARREMANETAKO E.T.	100	EZ		1		1	
6045	HIZKUNTZA NORMAL., E.T	100		EZ		1	1			
				BAI		1	1			
6069	ING. TEK. JARD.KONT	100	EZ		1		1			
9006	INSPEKTOREORDEA	115	EZ	1	1		2			
A2 (Guztira)						7	21		28	
C1	18	1112	KLARIKETE JOTZAILEA	100	EZ		1		1	
		1121	TXIRULA JOTZAILEA	100	EZ		1		1	
C1 (Guztira)							2		2	

MATRIKULA KONTUA						AZKENA	TXANDA		2022KO EPE, GUZTIRA	
TALDEA	DO	KODEA	IZENA	%	DD	2022KO EPE				
						PI	IREKIA	DESG.		
C2	12	1820	APARKALEKU JAGOLEA	100	EZ		1	1	2	
					BAI		1		1	
	14	1720	ARGIBIDE ETA KONTROL AGENTEA	100	EZ	1	2		3	
					BAI	2	2	1	5	
		1722	MANTENTZE OFIZ. ESPEZIALISTA	100	EZ	8	13	2	23	
		1725	SUKALDEKO OFIZ.	100	EZ	1	1		2	
					BAI		1		1	
		1821	ATERPETXEKO JAGOLEA	100	BAI		1		1	
	1904	GARBIKETA 1	100	BAI	2	6		8		
	15	7018	ERIZAINTZAKO ZAINKETA LAG. TEK.	100	EZ	1	4	1	6	
BAI					1	1		2		
17	9007	SUHILTZAILE ESPEZIALISTA	100	EZ		15		15		
				BAI		8		8		
C2 (Guztira)						16	56	5	77	
E	11	1815	IKUS., JOS., LISA.LAGUNTZ.	100	EZ		1		1	
		1825	LANBIDEETAKO LAGUNTZAILEA	100	EZ		2		2	
		1906	GARBIKETA2	100	53,33	EZ		4		4
					66,66	EZ		3		3
		1907	GARBITZAILE-ZERBITZARIA	100	EZ		6		6	
E (Guztira)							24		24	
Guztira						25	121	7	153	

EPE, ADIMEN-DESGAITASUNA

AZKENA 1	LANPOSTUAREN KODEA	IZEN LABURRA (EUSKARAZ)	DD	DESG.	ESKAINNTZA	GUZTIRA
DESG.LEP	1825	LANBIDEETAKO LAGUNTZAILEA	EZ		1	1
	1833	ZERBITZU-LAGUNTZAILEA	EZ	3	8	11
	1906	GARBIKETA 2	EZ		2	2
Guztira				3	11	14

* Lanbideetako laguntzailearen eta Garbiketa 2ko dotazioak zerbitzu-laguntzaile bihurtuko dira LPZn